

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Jauregira bisita gidatuak egiteko epea zabalik dago oraindik

*Ostiral honetatik abenduaren 1era egingo dira, eta entzuteko arazoak dituzten pertsonak ere parte har dezakete*

Astelehena, 2018.eko azaroak 19

2018 Nafarroako Egunaren markoan Nafarroako Jauregira doako bisita gidatuak egiteko plazak geratzen dira oraindik. Bisitak hilaren 23tik abenduaren 1era egingo dira. Aurten, bisita horiek entzuteko desgaitasuna edo arazoak dituzten pertsonentzat egokituta egongo dira, begizta magnetiko, soinu handiagotu edo zeinu-hizkuntzaren bidez.

Bertaratu nahi duenak 948 012 012 eta 012 telefono-zenbakietara dei egin dezake tokia gordetzeko (0,34 euro deia), 8:00etatik 19:00etara, astelehenetik ostiralera.

Nafarroako Eguna ospatzeko xedez aurretiazko egunetan tradizional bihurtutako ekimen honekin eraikin enblematiko hau eta barruan dituen bitxi artistiko eta historikoak ezagutzera eman nahi dira.

### Bisitei buruzko informazioa

Bisitaldiak 30 eta 35 pertsonako taldeetan egingo dira eta pertsona batek zuzenduko ditu Jauregiko gela ezberdinetan barrena. 75 minutuko iraupena izango dute. Nahi duenak, bisita euskaraz egiteko eska dezake.

Guztira 40 bisita programatu dira, 36 gaztelaniaz eta 4 euskaraz. Bisitaldi bakoitzean ordu laurden lehenago bertaratu beharko da, datuak egiaztatzeko. Lanegunetan 4 talde izango dira, eta jaiegunetan, berriz, 6.

### Hauek dira bisitetarako ordutegiak:

- Lanegunetan (azaroak 23, 27, 28 eta 30), 17:00etan, 17:30ean, 18:00etan eta 18:30ean.

- Jaiegunetan, azaroak 24 (larunbata), 25 (igandea) eta 29 (osteguna) eta abenduak 1 (larunbata), 11:00etan, 11:30ean, 12:00etan, 12:30ean, 18:00etan eta 18:30ean.

Hasteko, azalpen-bideo bat emango da, gela hauetatik ibilbidea eginez: Areto berdea edo errege-erreturuen gela, Lehendakaritzaren bulegoa, Bilera Aretoa, galeriak, Tronu Aretoa eta Kapera.

Gainera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren ikasleek musika-interpretazio labur bat eskainiko dute.

Parte hartzeko, NAN eman behar da, eta bisita hasi baino 15 minutu lehenago Carlos III etorbideko 2 zenbakiko sarrerara joan. 18 urtetik beherakoek pertsona heldu batekin joan behar dute.

Aipatu behar da Nafarroako Jauregiaren gela batzuk zainketa

bereziak behar dituztela, eta, ondorioz, ezin direla takoi finak eraman. Jana edo edariarekin sartzea debekatuta dago. Bai, ordea, gurpil-aulkiarekin edo aulkitxoarekin. Flashik gabeko argazkiak atera daitezke.